

Ingelesez murgiltzeko asteburua

Ingeles Departamentua, IHEO

Noiz: 2023ko martxoaren 3tik 5era

Lekua: Bakaiku, Nafarroa

Parte-hartzaileak: B2.2, C1 (moduluak barne), C2.1 eta C2.2 mailak

Jarduerak:

Jardueren egitarau zehatza parte-hartzaileekin partekatuko da joan baino astebete lehenago, baina jarduerak dinamikoak dira, pertsonen arteko interakzio naturala eta, batez ere, ahozko adierazpena butzaltzeko asmoz. Inola ere ez dira klase tradizionalak.

Ingeles Departamenduko irakasleak dira prestakuntzaz arduratzen direnak.

Izen ematea:

Otsailaren 10ean, ostirala, goizeko 9: 00etan irekiko da izena emateko epea, otsailaren 17ra arte. 30 plaza daude. Erregistro-hurrenkeran esleituko dira, betiere eskatzaileak betetzen baditu baldintzak (adin nagusiko ikaslea izatea, B2.2, C1, moduluak barne, C2.1 edo C2,2 mailetako ikaslea izatea). Gutxienez 20 parte-hartzaile beharko dira jarduera antolatzeko.

Izena aurrez aurre emango da IHEOko Administrazioan, bere ohiko ordutegian. Une horretan dagokion prezioa banku-txartelaren bidez **bakarrik** ordaindu beharko da.

Ordainketa garaiz eta behar bezala egiten ez dutenak kanpoan geratuko dira. Plaza libre baleude, itxaron-zerrendan geratu diren ikasleak plaza izateko eskubidea izango dute. Horretarako, erregistro-ordenari jarraituko zaio. IHEOk harremanetan jarriko da haiekin, ordainketa egin dezaten.

Garraioa:

Ikasleak euren kabuz iritsiko dira Bakaikura. Jarduaren hasierako ordua martxoaren 3an, ostirala, 18: 30ean izango da.

Prezioa:

65 euro. Ostata eta jarduerak ez ezik, ostiraleko afaria, eta larunbateko gosaria, bazkaria eta afaria prezioan sartuta daude.

Behin tasak ordainduta, eta ikasleak joan ezin badu, hutsa utzi duen plaza beste ikasle batekin betetzen bada bakarrik itzuliko zaio zenbatekoa.

Harremanetan sartzeko:

eoipingles@gmail.com